



Burdinbidearen Euskal Museoak datorren asteburuan hiru Lurrin Tren zirkulazioan jarriko ditu

Sociedad Anonyme pour Tous Appareillages Mécaniques (SATAM) enpresaren erregai-hornigailua, Museoko Erakusketako pieza berria

Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa den Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoak, datorren asteburuan hiru lurrin tren zirkulazioan jarriko ditu.

Tren horiek Museotik (Azpeitia) Lasara honako irteera ordutegia izango dute:

- Larunbata, urriak 3: 12:00etan eta 18:00etan.
- Igandea, urriak 4: 12:00etan.

1998tik aurrera, Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoak Urola Haraneko Lurrin Trenaren ustiapena kudeatzen du, Azpeitiko Museoaren eta Lasaren artean. Zerbitzu hori da lurrin-ikatz tren-makinaren bidez lan egiten duen Iberiar penintsulako tren turistiko bakarra. Eta Burdinbidearen Euskal Museoaren Lagunen Elkarteko kideen laguntza boluntarioarekin eta guztiz altruistarekin ematen da.

Museoko instalazioen irekiera ordutegia honako hau da:

- Asteartetik ostiralera: 10:00- 13:30 / 15:00-18:30
- Larunbatak: 10:30 - 14:00 / 16:00 - 19:30
- Igandek eta jaiegunak: 10:30 - 14:00

Nobedadea Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoaren Erakusketako kotxetegiaren eraikinean

Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoak bere Erakusketan, kotxetegiko eraikinean, zaharberitutako azken pieza historikoa sartu du: Levallois-Perreteko (Frantzia) SATAM (Société Anonyme pour Tous Appareillages Mécaniques) markako erregai-hornigailua, G-12 modeloa, Bartzelonako Isidro Herréz lantegiak lizentziapean egina.



Hornigailu hori Gipuzkoako Aldundi Probintzialarena izan zen, eta Gabierrotako (Errenteria) bere errepide-mantentze parkeko ibilgailuak hornitzeko erabili zuen, baita Karrikatik (Oiartzun) Gabierrotara doan treneko lokomotora txikiak ere, Aldundiaren jabetzakoak, gerora errepideak konpontzeko erabiltzen zen harria garraiatzeko erabiltzen zirenak. Hornigailua hogeita hamarreko hamarkadan eraiki zen, eta 50 urtez eman zuen zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoari eman zion 1998ko ekitaldian.

Erregai-hornigailu hori Elgoibarko Makina-erremintaren Museoko teknikarien lankidetzari esker zaharberritu ahal izan da. Erakunde horrek ibilbide luzea egin du Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoarekin lankidetzan (Azpeitiko Museoko tailer mekanikoaren mantentze-lanetan ere esku hartzen du).

Bisitariak eta langileak zaintzeko neurriak, Covid-19arekin bizi diren testuinguruan

Azpeitiko Burdinbidearen Euskal Museoko bisitarien eta langileen segurtasuna bermatzeko helburuarekin, eta Covid-19ak eragindako egoeraren aurrean beharrezkoa den urruntze fisikoari eusteko, honako neurri aktibo eta pasibo hauek ezarri dira:

- Babes-holtzak harreran.
- Harreran hidrogel desinfektatzailearen banagailuak.
- Ibilbide erabat zirkularra izango duen zirkuitu bat sortzea, Museoko bisitariak atzera egin dezaten eta aurretik daudenekin gurutzatu ahal izan daitezen saihesteko, jarraitu beharreko bidearen zorian gezi adierazgarriak markatuz.
- Edukiera murriztuko erakusketa-aretoak ixtea, distantzia sozial egokia bermatu ezin denean: Tren-uniformeen eta -kronometriaren bildumak.
- Instalazioen garbiketa indartzea, Museoko bisitariak eta langileak manipulatu ditzaketen elementuetan arreta berezia jarritz.
- Beste edozein esparru publikotan bezala, nahitaez erabili behar dira maskarak Museoko instalazioetara sartzeko.

Osasun-egoeraren bilakaeraren zain, tailer mekanikoaren eta tranbia historikoaren bisita gidatuak eta erakustaldiak bertan behera geratuko dira.



Jendurreko informazioa

- Burdinbidearen Euskal Museoaren helbidea: Julián Elorza kalea, 8 (20730 AZPEITIA-GIPUZKOA).
- Informaziorako telefono-zenbakia: 943 15 06 77
- Faxe: 943 15 07 46
- Helbide elektronikoa: **museoa@euskotren.eus**
- Webgunea: **www.euskotren.eus**

Igorpen data: 2020-09-30

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES